

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Udal Ordenantzaren behin betiko onarpena**

Derioko Udalbatzak, 2020ko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran behin-behingo onartu zuen norgehiagoka bidez ikasketetarako laguntzak esleitzeko ordenantza.

Epe horretan alegaziorik edo erreklamaziorik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betikotzat jotzen da automatikoki. Horrenbestez, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

*Aurkabideak*

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Aretoan, bi hilabeteko apean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, egoki deritzozun beste edozein aukabide erabil dezakezu, hala nahi izanez gero.

Derion, 2020ko irailaren 28an.—Idazkaria



**NORGEHIAGOKA BIDEZ ATZERRIAN HIZKUNTZAK IKASTEKO ETA MUSIKA  
ETA DANTZA IKASKETETARAKO LAGUNTZAK ESLEITZEKO ORDENANTZA**  
ZIOEN AZALPENA

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 artikuluan emandako araubidezko administrazio-eskumena erabilia ematen da.

Administrazio Publikoetan dirulaguntzen tratamendua arautzeko helburuarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onetsi zen eta, gero, Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu zuen.

Aipatutako Dirulaguntzen Lege Orokorren zioen azalpenak Aurrekontu Egonkortasunaren Legearen printzipio gidariak aurrekontuaren osagaietan aplikatzeko beharra ezartzen du; gardentasun-printzipioaren aplikazioari jarraitzen dio, Aurrekontu Egonkortasunaren Legean inspiratuta. Halaber, gastu publikoa kudeatzeko efizientzia- eta eraginkortasun-printzipioek ere gidatzen dute, dirulaguntza izapidetzeko orduan.

Printzipio arautzaile horiekin, Udalak hizkuntza-ezagutzak eta kultura-maila sustatu nahi ditu Derioko biztanleen artean, atzerriko hizkuntza-ikasketak eta musika- eta dantza-ikasketak sustatuz dirulaguntza honen bidez.

**1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen xedea da hizkuntza-ikasketak atzerrian, musika-ikasketak eta dantza-ikasketak egiteko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak ezartzea.

Dirulaguntzaren xede izango dira hizkuntzen ikasketen ikastaroan atzerrian eta musika- nahiz dantza-ikasketen ikastarotan parte hartzeko sortutako gastuak. Atzerriko hizkuntzen ikasketen kasuan, dirulaguntzak hegazkin-txartelekin, ostatu-gastuekin eta gainerakoekin lotutako gastuak estaliko ditu.

**2. artikulua. — Araubide juridikoa**

Ikasketetarako dirulaguntzen emakida, Ordenantza honetan aurreikusitakoaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorri buruzko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren eta Derioko Udalean indarrean dagoen Dirulaguntza Ordenantzaren arabera arautuko da.

**3. artikulua. — Aurrekontu-aplikazioa**

Ekitaldi bakoitzerako laguntzen zuzkidura ekonomikoa urtero onetsiko da udal-aurrekontuarekin batera, eta deialdian zehaztuko da, aurrekontu-banakapena adieraziz.

**4. artikulua. — Dirulaguntzaren banako zenbatekoa**

Dirulaguntzak Ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileri esleituko zaizkie, eta irizpide hauen arabera zehaztuko da zenbatekoa:

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa behar bezala justifikatutako gastuaren %50ekoa izango da, gehienez ere 500 euro pertsonako, aurrekontu-partida bakoitzean esleitutako kreditu-mugara iritsi arte.
2. Eskaera gehiegi badaude eta aurrekontu-kreditua ez bada nahikoa %50 hori estaltzeko, kreditua banatuko da onuradun guztiek behar bezala justifikatutako gastuaren ehuneko berdina jasotzeko.
3. Behin esleitutako dirulaguntzan zenbatzean, aurrekontu-aplikazioan kreditua badago soberan eta bestean ez badago nahikoa, kontuan hartuta bi aplikazioak lotura-poltsa beraren barruan daudela, geldikin hori erabili ahalko da beste jar-duera diruz laguntzeko, betiere esleitutako zenbatekoarekin muga errespetatuz.

**5. artikulua. — Onuradunen baldintzak**

Onuradunak izango dira soilik baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak:

- Dirulaguntzaren xede den ikasturte akademiko bakoitzaren abenduaren 31n De-rioko Udalean erroldatuta egotea.
- Dirulaguntzarekin ordainduko den ikasturtea egin eta behar bezala osatu izana.
- Dirulaguntzarekin ordainduko den ikasturteari dagokion zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzea.

Ondore horietarako:

- Ikastaroak eskoletan, prestakuntza-zentroetan edo akademiEtan egin ahal izango dira (ez dira sartzen pertsona fisikoek emandako klase partikularrak).
- Ikastaroak atzerriko hizkuntzei, musikari edo dantzari buruzkoak izan beharko dira. Ez dira diruz lagunduko euskara-ikastaroak.
- Ulertuko da ikasturte akademikoa irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaituko dela.
- Ikastaroa egin izana prestakuntza-zentroak sinatu eta zigilatutako aprobetxamendu-ziurtagiri batekin bidez egiaztatuko da, eta zentroa identifikatu eta ikaslearen datuak, emandako ikastaroa eta haren iraupena zehaztu beharko dira.
- Ikastarorako ordaindutako zenbatekoa dagokion faktura aurkeztuta egiaztatuko da, eta fakturazio-betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan ezarritako baldintza legal guztiak bete beharko ditu. Inolaz ere ez dira ordainketa-frogagiri gisa onartuko ordainagiriak, banku-transferentzien egiaztatutakoak edo antzekoak.

**6. artikulua. — Eskaerak aurkeztea**

Eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Eskaera espezifikoak. Laguntzaren hartzaileak diren adingabeei zuzendutako ikastaro edo prestakuntzen kasuan, guraso-ahala edo tutoretza dutenek sinatu beharko dute.

Eskaera-inprimakian banku-erakundearen izena eta kontu-zenbakia (20 digitu) jaso beharko dira.

Erantzukizunpeko adierazpenaren atal bat izango du, eskatutako eta beste administrazioen eskutik jasotako dirulaguntzei buruzkoa, eta eskatzaile guztiak bete beharko dute.

2. Diruz lagundu nahi den ikastaroaren faktura. Epeetan fakturatzen bada, dirulaguntzaren xede den ikastaroaren epeari dagozkion faktura guztiak aurkeztuko dira.
3. Diruz lagundu nahi den ikastaroaren aprobetxamendu-egiaztatutakoak, prestakuntza-zentroak sinatu eta zigilatuta, non zentroa identifikatuko den eta ikaslearen datuak, emandako ikastaroa eta haren iraupena zehaztuko diren. Erreferentzia espresa egin beharko zaio ikasturtea gainditu izanari eta ikaslearen parte-hartze eta aprobetxamenduari.

Eskaerak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira udaletxean, baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako modu guztietan ere.

Eskaerak eta dokumentazioa aurrez aurre aurkeztu direnean udaletxeko erregistroan, originalak aurkeztuko dira, eta kopia autentiko moduan digitalizatuko dira; originalak, berriz, interesdunari itzuliko zaizkio.

Administrazioak egiaztatuko du eskatzaileak udalerrian erroldatuta egon direla ikasturte akademiko bakoitzari dagokion abenduaren 31n.

Dirulaguntza-eskaera aurkeztean, baimena ematen zaio organo kudeatzaileari Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak igorri beharreko ziurtagiriak biltzeko, baldin eta beharrezkoak badira.



Eskaerak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio 5 egun naturaleko epean hori konpontzeko edo nahitaezko dokumentuak atxikitzeko; ez badu hori egiten, eskaera bertan behera geldituko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoetan eman beharko den ebazpenari jarraikiz.

**7. artikulua. — Deialdien araubidea**

Urtero, Derioko Udalak organo eskudunaren erabakiaren bidez onetsiko du dagokion ikasturterako dirulaguntzen deialdia.

Deialdiaren testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, DDBNren bitartez, behin haren aurrean deialdiaren testua eta argitaratzeko eskatutako informazioa aurkeztu direnean, baita eskaerak aurkezteko modua eta epea ere.

**8. artikulua. — Prozedura**

Dirulaguntzak araudian zehaztutako lehia-prozedurarekin bat esleituko dira, zehaztasun hauekin:

1. Espedientearen organo instruktorea Udaleko Herritartasun Saileko teknikari bat izango da.
2. Organo instruktoreak eskaerak baloratuko ditu, eta egiaztatuko du eskatzaileek oinarri hauetan xedatutakoa bete dutela, eta, hala badagokio, datu eta dokumentuetan beharrezko zuzenketak egin dituztela. Ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeari proposamen-txostena bidaliko dio, eta hark erabaki bat hartuko du dirulaguntzaren ebazpen-proposamenarekin.  
Ebazpen-proposamena eskatzaileei jakinaraziko zaie, egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten.
3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Alkatetzak espedientearen ebazpena ebatziko du. Ebazpenaren, dirulaguntza jasoko duten eskatzailea edo eskatzaileen zerrendaz gain, gainerako eskaeren ezespena jasoko du espresuki.
4. Ebazpena eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie. Ebazpen-proposamenek ez dute proposatutako onuradunaren aldeko eskubiderik sortzen, Administrazioaren aurrean, baldin eta ez bazaio jakinarazi esleipen-ebazpena.

**9. artikulua. — Dirulaguntzak ordaintzea**

Dirulaguntzak behin esleipena jakinaraztean ordainduko dira, onuradun eta/edo eskatzailearen banku-konturako transferentziaren bidez.

Organon kudeatzaileak ofizio eta laguntzak ordaindu baino lehen egiaztatuko du onuradunak Toki Ogasunarekiko zor guztiak ordaindu dituela.

Ez da ordainketarik egingo onuradunak aurreko ekitaldietan dirulaguntzarik jaso badu eta Udalak ez badu horien justifikazioa onetsi.

**10. artikulua. — Onuradunaren betebeharrak**

Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak espezifikatu dira, oinarri hauetan jasotako gain, honako hauek:

1. Dirulaguntzen esleipena arautzen duen araudiak ezarritako betebeharrak betetzea.
2. Finantza-egiaztapen eta -kontrolaren jarduketan xede izatea, jarduketa horien bitartez eskatutako informazio guztia aurkeztuz.

Eskaeran formulatutako datuen bat ez badator bat Udalak egiaztatutakoekin, interesdunak Udalaren ikasketetarako laguntzen onuradun-izaera galduko du etorkizunean.

**11. artikulua. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Derioko Udalaren eskutik jasotako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuenekin edo laguntzaren xede diren ikasketak finantzatzeko bestelako diru-sarrerara motekin, baldin eta ez badago gainfinantzaketarik.

Jarduera zehatz eta espezifikoa ez da inolaz ere Udalaren finantzaketa bikoitzaren xede izango, dirulaguntza-deialdi ezberdinen bidez.

**12. artikulua. — Publizitatea**

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitatearen sistema nazional moduan jardungo du. Xede horietarako, administrazio esleitzailleek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari bidali beharko diote deialdiari eta esleipen-ebazpenei buruzko informazioa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako terminoetan.

Deialdiaren testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, DDBNren bitartez, behin haren aurrean deialdiaren testua eta argitaratzeko eskatutako informazioa aurkeztu direnean.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta gelditzen da 2018ko irailaren 28an argitaratutako ordenantza.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluetan aipatutako 15 egun balioduneko epea igarotakoan.